

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-3112 errepidea Egiletan, 13,10 km-aren eta 13,47 km-aren artean, egokitu eta trazadura hobetzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara

Foru Gobernu Kontseiluak, 2020ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, 116/2020 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

Egiletan A-3112 errepidea 13,10 kilometro puntutik 13,47 kilometro puntura egokitzeko eta trazadura hobetzeko proiektua” jendaurrean egon zen bitartean haren aurka aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna. Onestea eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda. Okupatu beharraren adierazpena. Presaz okupatzearen adierazpena. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 21eko 334/2019 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi ziren “Egiletan A-3112 errepidea 13,10 kilometro puntutik 13,47 kilometro puntura egokitzeko eta trazadura hobetzeko proiektua” eta proiektua gauzatzeko eragindako ondasun eta eskubideak banan-banan jasotzen dituen hasierako zerrenda zehatza, bai eta nahitaezko jendaurrean jartzeko izapidea betetzea ere.

Proiektua jendaurrean egon den aldian, alegazio idazkia aurkeztu dute espedienteko 3/000 finkaren aprobetxamenduari dagokionez, eta Lege eta Administrazio Zerbitzuak horri buruzko txostena eginda, Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Zuzendaritzak onetsi du, eta bere egiten du Gobernu Kontseilu honek; horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileari igorriko zaizkio, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Alegazioei erantzunda, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onetsi behar da, zeina taxutu baita kontuan izanda jendaurreko informazio aldi batietsi den eta hasieran onetsitako zerrenda aldatzen duen alegazioa; horrez gain, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratu beharra aitortu behar da, desjabetu eta aldi batez okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo amaitzeko.

Desjabetze espedientearen izapidetzeari dagokionez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez izapidetu behar dela eta, ondorioz, presazko okupazioa adierazi behar da. Ildo horretan, Errepide Zerbitzuak haxe adierazten du:

Arabako Errepideen 2016-2017ko Plan Integralak, “Sarea egokitu eta hobetzeko” programaren barruan, jasotzen du A-3112 errepidea hobetzea Egiletan A-132 errepidearen gurutzagunearen eta Dulantzian A-3110 errepidearen gurutzagunearen artean, lehentasunez 2020-2024 hirurtekorako.

Tarte horren barruan, Egiletan 13,10 kilometro puntutik 13,47 kilometro puntura bitarteko tartean A-3112 errepideak “A-132 errepidean (Azazeta mendatea) egokitzapen lanak, trazadura hobetu eta errepide geldoa eraikitzeke proiektua” egin aurreko trazadura dauka.

Ondorioz, A-3112 errepideak ez du jarraikortasunik eta ez dauka lehentasunik Dulantzi eta Egileta arteko komunikazioan, orain dagoen gurutzagunea zeharkatu behar baita (A-132 errepide zaharraren gurutzagunea) eta ezkerrean biratu Dulantziranzko norabidean joateko eta

dagoen STOPean geratu Dulantzi-Egileta tarte egiteko; ondorioz, segurtasun arazo larriak sortzen zaizkie errepide horren erabiltzaileei.

Arazoa konpontzeko, Dulantziko Udalak eta Egiletako Administrazio Batzarrak eskatuta, proiektua idatzi da A-3112 errepidearen trazadura hobetzeko tarte horretan, lehenetsuna eta jarraipena emanez hari, gaur egun dagoen gurutzagunea kenduta (Azazeta mendateko errepidearen lehengo trazaduraren ondorio).

Hori dela eta, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak erabaki du jardutea A-3112 errepideko tarte horretan eta, horretarako, aipatutako proiektua onetsi du. Proiektuak jasotzen du oinplanoko eta altxaerako trazadura hobetzea, badagoen bihurtueneraren radioa handituz 50 km/orduko abiadurarako, bai eta proiektuaren zonako zeharkako sekzioa ere, bi erreiko plataformari 3,00 metroko zabalera gehituta bakoitza bere gainzabalerarekin, eta metro 1,00eko bazterbideak eta 0,50 metroko bermak ere. Horrela, lehenetsuna eta jarraipena emango zaio A-3112 errepideari, gaur egun dagoen gurutzagune nahasgarria kenduko baita, erabiltzaileentzako trafiko karga behar bezalako segurtasun eta erosotasun baldintzetan jasotzeko moduko bidea egiteko helburuarekin, gaur egun tarte horrek dituen segurtasun arazo larriak konponduz.

Jarduna osatzeko, tartean seinaleak eta balizak jarriko da, egokitzapena egin ondoren, eta horretarako, erreiak eta galtzada ertzak bereizteko bide markak jarriko dira, beharrezko diren seinale bertikalekin eta, badaudenen modu osagarrian, alertako zeharkako bandak, erabiltzailea ohartarazteko bihurtuenera hurbil dagoela eta abiadura egokitu beharra duela; gainera, gidatzean arreta handiagoa jartzeko balio du.

Premiazko jotzeko izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, honako hauek xedatutakoaren arabera: lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriari buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46 1.b) artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarria.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa) 7. eta 8. artikuluetan eta ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa) 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barruan, Foru Gobernu Kontseilu hau da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta haiek okupatu beharra onesteko, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera ere.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. Erantzutea Egiletan A-3112 errepidea 13,10 kilometro puntutik 13,47 kilometro puntura egokitzeke eta trazadura hobetzeko proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jendaurrean egon bitartean aurkeztutako alegazioei, eta baietsi edo ezestea alegazio horiek Lege eta Administrazio Zerbitzuaren txostenetan jasotakoaren arabera.

Bigarrena. Onestea "Egiletan A-3112 errepidea 13,10 kilometro puntutik 13,47 kilometro puntura egokitzeko eta trazadura hobetzeko proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda (honekin batera doan eranskinean jaso da).

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Laugarrena. Adieraztea honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, eta, horregatik, desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Bosgarrena. Esleitzea 11.709,50 euro eragindako ondasunen eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontuaren "Desjabetzeak" izeneko 50106.5300.6000002 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-546/000.20.1.20).

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean zerrendatutako finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta xedapen erreferentziaren kontura. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruaren ordainketaren proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hori gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak edo aldaketak egin ahal izateko, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2020rako aurrekontua betearazteko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauak 16.1.a) artikuluan."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Alegria-Dulantziko Udaletxetako lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 27a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Viarías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

A-3112 ERREPIDEA EGILETAN, 13,10 KM-AREN ETA 13,47 KM-AREN ARTEAN, EGOKITU ETA TRAZADURA HOBETZEKO PROIEKTUA
PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO Y MEJORA DE TRAZADO DE LA CARRETERA A-3112, ENTRE EL P.K. 13,10 Y EL P.K. 13,47, EN EGILETA

Esp./Expte. 2019/8

FINKAREN ZK.	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK POLIGONOAREN IZENA DATOS CATASTRALES POLIGONO PARCELA	UDALERRIA TERMINO MUNICIPAL	APROBETXAMENDUA APROVECHAMIENTO	ERAGINDAKO ONDASUNA BIEN AFECTADO	ERAGINDAKO AZALERA m ²		EGUNA DIA	ORDUA HORA
						BEHIN-BETIKOA / ALDI BATERAKOA / DEFINITIVA	SUPERFICIE AFECTADA m ² TEMPORAL / SERVIDUMBRE		
3/000	EPIFANIA LOPEZ DE ABECHUCO BEITIA	2 129	ALEGRIA-DULANTZI	BARATZEA / HUERTA		105		1/4/20	10:00
5/000	M. ESTHER QUINTANA GARCIA DE VICIÑA M. ANGELES QUINTANA GARCIA DE VICIÑA M. ASCENSION QUINTANA GARCIA DE VICIÑA M. ARANZAZU QUINTANA GARCIA DE VICIÑA	2 124	ALEGRIA-DULANTZI	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		870		1/4/20	10:45
6/000	M. ESTHER QUINTANA GARCIA DE VICIÑA M. ANGELES QUINTANA GARCIA DE VICIÑA M. ASCENSION QUINTANA GARCIA DE VICIÑA M. ARANZAZU QUINTANA GARCIA DE VICIÑA	2 123	ALEGRIA-DULANTZI	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		10		1/4/20	10:45
1/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGILETA	2 92	ALEGRIA-DULANTZI	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		438		1/4/20	12:30
2/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGILETA	2 134	ALEGRIA-DULANTZI	LARREA / PASTIZAL		966		1/4/20	12:30
4/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGILETA	2 135	ALEGRIA-DULANTZI	LARREA / PASTIZAL		840,76		1/4/20	12:30